

Unibertsitateko ikasleen gaitasun komunikatiboa lantzen: taldekako eztabaidak ikasgelan¹

Edu Zelaieta Anta

edu.zelaieta@ehu.es

Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika
Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola
Euskal Herriko Unibertsitatea

GAKO-HITZAK: Hizkuntzaren didaktika. Gaitasun komunikatiboa. Genero diskurtsiboak. Taldekako eztabaidak.

1. SARRERA

Molde berriak ezagutzen ari gara Euskal Herriko Unibertsitatean, Europako unibertsitateak homologatzeko helburu duen Bologna prozesua dela eta. Jakina da aldaketa hauek aldeko eta kontrako iritziak bildu izan dituztela azkenaldian. Luze joko luke gure jarrera hemen azaltzeak, besteak beste, ildo bakar bateko ikuspegia ez dugulako: argiak eta ilunak sumatzen ditugu guk prozesuan². Nolanahi ere den, gure gaitasun kritikoari muzin egin gabe, Bologna izena duen haize honek aldaira interesgarriak ere ekarri ditu. Esate baterako, unibertsitateko irakasleen arteko koordinazioa eta elkarlana bermatzeko konpromisoa hartu izan da, ikasgaika lan egiteaz gain, moduluka ere aritzen hasiak baikara, hainbat arlotako irakasleak elkartuz. Haur Hezkuntzako Graduari dagokion lehen mailako lehen lauhilekoan,

¹ *Gaitasun Komunikatiboaren Garapena I* ikasgaiaren arduradun eta *Irakaslearen Lanbidearen* moduluaren koordinatzaile garen honetan, lerro hauetan aurkeztu behar dugun emaitza talde-lan aberasgarri baten ondorioa dela adierazi nahi dugu. Hortaz, bihoaz hemendik eskerrik beroenak lankide zintzo eta on ditugun Ander Olalde, Marisa Garai-Gordobil eta Puy Fernandez irakasleei, nahiz idazki honen lehen zirriborroari ohar aberasgarriak egin dizkion Uri Ruiz Bikandi irakasleari.

² Afera honi dagokionez, hezkuntzaren sistema publikoan enpresa pribatuen logikaren itzala dakusagu, sektore pribatutik datozen modu eta moda zenbait ezarritz.

adibidez, *Irakaslearen lanbidea* izeneko moduluan ondoko arlo hauek jorratzen aritu gara: *Garapenaren psikologia eskola-adinean*, *Hezkuntzaren teoria eta historia*, *Hezkuntzaren soziologia*, *Irakasle funtzioa* eta *Gaitasun komunikatiboaren garapena I*.

Gure unibertsitate kulturalan molde berria da arestikoa, inondik ere. Aitzitik, dena ez da berria, bat-batean sortua-edo: unibertsitatea hobetzeko izan daitekeen aldaketa hau zinez baliatuko badugu, ezin ditugu irakasle (eta ikasle) askoren eginahalak baztertu; areago, ahalegin akademiko hauek egiazko arrakasta erdietsi izan dutenean. Aurrera egiteko, esaera zaharrak dioen legez, atzekoa kontuan hartu behar da; izan ere, lehen aldiz ikasten eta irakasten aritu garen *Gaitasun komunikatiboaren garapena* ikasgaia berria izanagatik ere, aurretik Hizkuntzaren Didaktikan landua den eta Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola honetan bertan guregana ailegatu den tradizio didaktikoa baliatzen ari gara³.

Artikulu xume honek gure oraingo lanaren berri emateaz gain badu beste xede garrantzizko bat: Hizkuntzaren Didaktikan ari garen profesionalon artean eztabaida zientifikoa piztea eta gogoeta eragitea, langai dugun hizkuntzaren alor komunikatiboa hobetzeko asmoz.

Sarrera amaitzeko, lehen atal honen ondotik irakurleak zer eta non aurkituko duen jakin dezan edukien hurrenkera iragarriko dugu: 2. atalean, zenbait oinarri teoriko agertuko ditugu, gaitasun komunikatiboaren funtsa azalduz; 3. atalean, *Gaitasun komunikatiboaren garapena* izeneko ikasgai berria nondik nora doan arituko gara; 4. atalean, gure proposamenaren datza jorratuko dugu, taldekako eztabaidak ikasleek hizkuntza lantzeko aukera paregabea dela defendatuz; 5. kapituluan, 2010-2011 ikasturtean egin ditugun lehen eztabaiden balorazioa agertuko da, alderdi positiboak zein hobetu beharrekoak aipatuz; 6. atalean, ondorio nagusiak biltzen saiatuko gara; azkenik, erreferentzia bibliografikoak eta eranskinak txertatuko ditugu.

2. ZENBAIT OINARRI TEORIKO: GAITASUN KOMUNIKATIBOAREN FUNTSA

Bigarren kapitulu honetan, laburki baldin bada ere, gaitasun komunikatiboa funtsatzen duten zenbait oinarri teoriko azaldu nahi ditugu. Lehenik, honenbestez, gaitasun komunikatiboaren izena erabili zuen lehenbiziko autorea aipatu beharrean gaude: Dell Hathaway Hymes antropologoa, zeinak,

³ Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolan, *Euskara eta bere didaktika* ikasgaietatik *Gaitasun komunikatiboaren garapena* ikasgaietara egindako bidaian hiru irakasle aipatu beharrean gaude: Amaia Alvarez Uria, Jesus Garai eta Maite Mendiburu. Halaber, azken irakasle honek berriki argitaratu eman duen materiala ere baliatu dugula esan beharrean gaude (Mendiburu, 2010).

Chomsky hizkuntzalari ospetsuari kritika eginez, esan baitzuen gramatikaz eta gaitasun linguistikoez landara parametro etnografikoak eta soziokulturalak ere baliatu behar direla hizkuntza behar bezala erabiltzeko (Hymes, 1972). Horrela, oraintsu azaldu dugunaren arabera, gaitasun komunikatiboaren definizioa ondoko hau dugu: hiztun batek behar duen gaitasuna testuinguru desberdinetan komunikatzeko. Horregatik, solasen bitartez egoki komunikatu ahal izateko, hiztunak testuingurua zein den jabetu eta egoera horretara egokitu beharko du bere jardun linguistikoa. Horretantxe datza, hain zuzen, komunikatzeko gaitasuna: diskurtsoa testuinguruaren arabera moldatzen jakiteko trebetasunean.

Geroagoko beste autore batzuek sakondu zuten Hymesen gaitasun komunikatiboaren kontzeptuan. Aski ezagunak dira Canale & Swain (1980) eta Canalen (1983) ereduak, gaitasun komunikatiboa lau azpigaitasunetan sailkatuz: gaitasun linguistikoa, gaitasun soziolinguistikoa, gaitasun diskurtsiboa eta gaitasun estrategikoa (xehetasun gehiago jakin nahi izanez gero, ikus Canale & Swain, 1980 eta Canale, 1983; bai eta geroagoko beste proposamen batzuetarako ere, Bachman, 1990; Bachman & Palmer, 1996; Celce-Murcia, Dörnyei eta Thurrell, 1998; azkenik, aurreko eredu guztien analisisa eskaintzen duen Ruiz Bikandi, 2009: 103-132).

Lehentxeago aipatu dena etsenplu batez hobeki ikus dezagun, klasean gai bat egoki azaltzeko ondoko prozedura hauek baliatu beharko lirateke, hizlariak — irakasle zein ikasle batek — komunikatu beharrekoa arrakastaz komunikatuko balu. Horretarako, bada, gaitasun komunikatiboa osatzen duten lau azpigaitasunen arabera antolatuko ditugu itemak:

GAITASUN LINGUISTIKOA

- Perpaus bakun nahiz konposatuak erabiltzea.
- Ordena sintaktiko egokia. Galderak ere baliatzea.
- Hiztegi zehatza erabiltzea eta ezagunak ez diren terminoak azaltzea.
- Ahoskera garbia eta lasaia izatea. Erritmo eta tonu egokiak baliatzea.

+

GAITASUN SOZIOLINGUISTIKOA

- Entzuleen ezagutzetara egokitzea.
- Entzuleen interes eta beharrak kontuan hartzea.
- Ahozko erregistro formalaren ezaugarriak baliatzea.
- Ikasgelako erregelak ezagutu eta erabiltzea (hizlariak hitz egiten du, hizlariak hitza ematen du, hitza eskua altxatuta eskatzen da...).
- Hasieran agurtzeko eta bukatzeko forma egokiak erabiltzea.

+

GAITASUN DISKURTSIBOA

- Eskema edo gidoi bat egitea (ideiak antolatzeko).
- Azalpena ohiko egituraren arabera antolatzea: sarrera (korapiloa azaltzea), garapena (askatze fasea) eta sintesia (ondorio fasea).
- Testu antolatzaileak erabiltzea, atal desberdinak markatzeko eta ideien arteko loturak adierazteko.
- Adibideak, konparazioak, metaforak, metonimiak eta bestelako baliabide erretorikoak erabiltzea, azaldu beharrekoaren argigarri.

+

GAITASUN ESTRATEGIKOA

- Ikus-entzunezkoen erabilpena (irudiak, transparentziak, power-point...).
- Gidoiak edo eskemak paperean banatzea.
- Ahotsaren intentsitatea espaziora egokitzea.
- Intonazio enfatikoaren bidez kontzeptu garrantzitsuak markatzea.
- Entzuleei (egokiro) begiratzea.
- Atalen artean eten txikiak egitea, diskurtsoari oxigenoa emanaz.

Orain arte agertu dugunez, testuinguru bakoitzak bere osagai espezi-fikoak izaten dituela eraz ondoriozta daiteke. Goragoko adibidean, azal-penezko testu batez ari ginen, unibertsitateko ikasgelan eman beharreko azalpen batez, hain zuzen ere. Hortaz, ez da gauza bera lagunekin hitz egi-tea, azterketa batean idaztea, laneko elkarrizketa batean egotea, urtebeteko haurtxoarekin solas egitea edota irratian gai polemiko baten inguruan ez-tabaidatzea. Arestiko testuinguruok ezberdinak dira, eta, ezberdinak diren heinean, ezberdin jokatzeko dugu guk haietako bakoitzean.

Horrela, pertsona bakoitzak (ahoz nahiz idatziz) *ezberdin* jokatzeko molde horiek ikasi eta garatzen ditu bere bizian. Molde horien metaketari errepertorio komunikatiboa deitzen ahal diogu. Errepertorio ideal batean, tes-tuinguru bakoitzerako komunikatzeko modu espezifikoa izanen genuke. Aurrerago ikusiko dugunez, modu espezifikoa horiei genero diskurtsibo deri-tze hizkuntzaren didaktikan: zenbat eta genero diskurtsibo gehiagotan trebatu hiztuna, orduan eta komunikatzeko gaitasun handiagoa erdietsiko du.

Calsamiglia eta Tusón-ek adierazi bezala (1999), hiztunon errepertorio komunikatiboek arauak eta erregelak dituzte; hau da, heterogeneitate lin-guistiko-diskurtsiboa ez da inondik ere kaotikoa, ikasi eta irakatsi egin bai-taiteke. Horretarako, baina, teoriak gainera, diskurtsoa sozialki praktikatu beharreko jarduna da; gure kasuan, ikasgela entrenatzeko *gimnasio* aparta dugula aldarrikatu nahi dugu, unibertsitateko ikasleak hiztun eta, areago, hizlari trebeak bihurtzeko; unibertsitateari dagozkion genero akademi-koetan, bereziki.

Irakasleen Unibertsitate Eskoletan, komunikazioaren auziak berebiziko garrantzia du; izan ere, bertan Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleak formatzeko ari gara, etorkizun hurbilean milaka haurren eredu gertatuko direnak. Beraz, gure oraingo ikasleek ongi komunikatzen ikasten baldin badute, biharko haurrak hezteko lanabes garrantzitsua — beharbada, garrantzitsuena — izango dute euren lanean. Xavier Besalú pedagogoaren arabera (2007), irakasle izateko gelan komunikatzaile ona ezinbestean izan beharra baitago.

Honenbestez, gaitasun komunikatiboari berezko tarte bat ematea erabaki da unibertsitateko plangintza berrian, aurrerantzean irakasle ikasketei dagozkien lehen bi mailetako ikasgai derrigorrezkoa izanen delarik: graduko lehen mailako *Gaitasun komunikatiboaren garapena I* eta graduko bigarren mailako *Gaitasun komunikatiboaren garapena II*⁴.

3. **GAITASUN KOMUNIKATIBOAREN GARAPENA TRADIZIOA DUEN IKASGAI BERRIA**

Gaitasun komunikatiboaren garapena ikasgai berria izanagatik ere, aurreko atalean ikusi dugun legez, hizkuntzaren didaktikaren tradizioan ongi txertatutako gaia da, ez baita lehen aldia Irakasle Eskoletan hizkuntza parametro komunikatiboez neurtzen dela: zorionez, aspaldi samarrekoak dira metodologia eta ikuspegi komunikatiboak hizkuntzaren didaktikan. Kontu honetan, benetan berria dena derrigorrezko ikasgaiaren estatusa da, hemendik aurrerako ikasleek egoki komunikatzeko gai direla frogatu beharko baitute halaberharrez, maisu-maistrak izango badira.

Ikasgai honen helburua graduko lehen mailako ikasleei prestakuntza linguistiko-komunikatiboa eskaintzea da. Komunikazio egoerak, testuaren erregelak eta hizkuntzaren arauak kontuan hartuz, ikasleek komunikazio gaitasuna hobetzea lortu nahi du ikasgai honek. Ondoko hauek dira ikasgaiaren gaitasunak:

- Testuinguru akademikoan ageri diren testuak aztertzeke, prozesatzeko eta sortzeko gauza izatea, ahoz nahiz idatziz.
- Taldeko jardueretan parte hartzea, elkarlana eta bakar-lanen bidez.
- Hizkuntza-gaitasuna areagotzea Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan, gutxienez B2 mailaraino⁵.

⁴ Dena den, unibertsitatetik kanpo, LOGSEk ekarri zuen gaitasun komunikatiboa hezkuntza sistemara duela bi hamarkada, gainerako gaitasunekin batera. 2006an etorri den LOEk, nolabait aurrekoari jarraikiz, Oinarriko Hezkuntzarako zortzi gaitasun ezarri ditu, horien artean gaitasun komunikatiboa lehenbizikoa delarik (Pérez Esteve & Zayas, 2007). Hortaz, egun, gaitasunetan oinarritutako curriculumak ditugu hezkuntzako etapa guztietan, Haur Hezkuntzan hasi eta Unibertsitatean buka.

⁵ Gradu berriak amaitzean, ikasleek Europako Markoan ageri den C1 maila frogatu beharko dute bi hizkuntza ofizialetan.

Hemendik aurrera, ikasgaiaz mintzatzean, lehen mailako *Gaitasun komunikatiboaren garapena I*-ez arituko gara, horixe delako orain arte ikasleekin praktikan jarri izan duguna eta artikulu honetan berariaz jorrratu nahi ditugun argudiozko testuak graduako lehen urtean lantzen direlako.

Ikasgaiaren metodologia ez da diskurtso diferenteen inguruko teoria hutsa ematean oinarritzen. Aitzitik, hizkuntzaren erabileran trebetasuna garatzea lortu nahi da, hizkuntza mintzatuan nahiz idatzian. Horregatik, ezinbestekoa den teoriiaz gainera, hainbat ariketa eta praktika proposatzen dira ikasleek eskoletan nahiz etxean egin ditzaten. Orobat, tutoretza orduak ere garrantzia dute, eta ikasgaia hobeto prestatzeko nahiz bibliografiaren inguruko zalantzak argitzeko erabil ditzakete ikasleek.

Jarraian, *Gaitasun komunikatiboaren garapena I* ikasgaiaren lantzen diren gaiak eta edukiak zerrendatuko ditugu, taldekako eztabaiden gaineko gure proposamenari testuinguruan kokatu eta ondoan⁶:

Arestiki programari erreparatuz, bi dira lehen mailako ikasleekin espresuki lantzen ditugun testu motak: azalpena eta argudiatzea. Gaitasun komunikatiboaz azaltzen duten oinarritzko kontzeptuak ikusi eta gero, azalpen-testuak aztertzen ditugu, argudiozkoak geroagoko utziz. Edukien sekuentziario hau ez dela zorizkoa ohartarazi nahi dugu: teoriatik praxirako bidean, maisu-maistrek gehien erabiltzen duten testu mota nagusia landu baitugu lehenik (azalpena), gero, horren aldaera den argudiatzea lantzeko. Akitzeko, azalpenaren eta argumentazioaren sekuentziak bilzen dituen txostenaren genero akademikoa jorrratzen da moduluaren azken asteetan.

Ikasgaia ebaluatzeko honako sistema hau proposatzen da: ikasleak ikasturtean zehar hiru lan aurkeztu behar ditu (bakoitzak azken kalifikazioaren % 20 balioko du) eta lauhilekoaren bukaeran etsamina bat (% 40) egin beharko du. Ikasgaia gainditzeko *conditio sine qua non* lau atalak gainditzea da (gainditzen ez den atala ezohiko deialdian egin beharko du berriz ikasleak). Etsaminaz gain, ebaluagarriak diren hiru lanak edo atalak testu motak nahiz genero diskurtsiboak lantzeko erabiltzen dira, segidan azalduko dugun moduan:

1. Lana (% 20): azalpenezko testu bat, banaka eta idatziz (urriaren bigarren hamabostaldian).
2. Lana (% 20): taldekako eztabaida bat, ahoz (azaroaren bigarren hamabostaldian).

⁶ Ikasgaiaren gida osoa Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren atarian dago ikusgai. Nahi duenak, beraz, ikasgaiaz informazio zehatza ematen duen dokumentu zabalago horretara jo dezake.

1. Testuak eta diskurtsoak aztertzeko nahiz ekoizteko oinarrizko kontzeptuak:
 - 1.1. *Sarrera*: galdezka eta hausnarrean ikasgaia girotzen. Benetako arazo bat: alfabetizazio akademikoa.
 - 1.2. *Gaitasun komunikatiboa*: gaitasunaren definizioa eta berau osatzen duten azpigaitasunak, Pragmatika Linguistikoa, Testu Hizkuntzalaritza.
 - 1.3. *Diskurtsoaren analisia*: ahozko eta idatzizko erregistroak, diskurtsoaren nozioa, genero diskurtsiboak, ezaugarriak eta analisia.
2. Esparru akademikoan erabiltzen diren testu motak eta genero diskurtsibo nagusiak:
 - 2.1. *Azalpena*.
 - Definizioa eta oinarrizko teoria:
 - Egitura: testuaren atalak, lokailuak eta ideien garapena.
 - Testuingurua: elkarreragintza (jakintza mailak, interesa mantentzea eta modalizazioa).
 - Helburu komunikatiboak (estiloa, baliabide erretorikoak).
 - Azalpen eredu baten azterketa osoa.
 - Azalpen idatzi bat egitea.
 - 2.4. *Argudiatzea*:
 - Definizioak eta oinarrizko teoria: argudiatzearen kontzeptua, tesia, argudioak, frogatzea (baieztatzea) edota gezurtatzea (ezeztatzea), falaziak eta kontraargudioak.
 - Argudio eta falazia mota nagusiak.
 - Gure iritziekin jokatzeko: kontraargudioak.
 - Erretorika klasikoaren faseak (geure diskurtsoa gauzatzeko): *inventio*, *dispositio*, *elocutio*, *memoria* eta *actio*.
 - Taldekako eztabaidak ikasgelan: eztabaida prestatzen, eztabaida egiten eta eztabaida errebisatzen.
 - 2.3. *Txostena*:

Moduluko kasuari buruzko txosten diziplinartekoa, orain arteko hezkuntza sistemetan generoa nola jorratu den gai nagusitzat hartzen duena. Gehieenez, 10 orrialdeko txostena da, aurretik ikasgaiari landu diren azalpenezko eta argudioezko testuak uztartzen dituen lan akademikoa⁷.

⁷ Gogoan hartu, hasieran adierazi den bezala, moduluko lan honetan gaitasun komunikatiboaz gain beste lau ikasgaiek ere parte hartzen dutela. Hori dela eta, gure arlotik bi alderdi nagusi lantzen dira: txostenaren egitura eta ezaugarri diskurtsibo-linguistikoak azaltzea eta hizkera ez sexistaren inguruko proposamenak aurkeztea. Alde horretatik, moduluko lanaren bidez, Garcia Azkoagak bere artikuluan (2007: 183-184) proposatzen duena egiten ari gara Gasteizko Irakasle Eskola honetan: hizkuntza eta komunikazioa lantzeko ikasleei diziplinarteko lana proposatu; kasuon, txostenaren genero akademikoa gauzatzeko eskoletan gerta daitezkeen egiantzeko kasu bat lantzen baita.

3. Lana (% 20): ikasle bakoitzak moduluko kasuari buruzko txosten labur bat idatzi beharko du (abenduaeren bigarren hamabostaldian, Eguberrien aitzinetik)⁸.

Honenbestez, lanen bidez azken kalifikazioaren % 60 lortzen du ikasleak eta beste % 40, berriz, etsaminaren bidez. Beste era batera nahiago bada, egunerokoak (zenbakizko) garrantzi handiagoa du azken kalifikazioan azterketak baino.

Jarraian, laugarren kapituluan, hizpide hartuko dugu gure proposamenaren ardatza, hots, ikasleek aurkeztu behar duten bigarren lana: taldekako eztabaidak.

4. TALDEKAKO EZTABAIDAK UNIBERTSITATEKO IKASGELAN

Lehenik, argudiozko testuen garrantzi praktikoaz ohartarazi nahi dugu; zeren eta jendarteak kezkatzen dituen gai guztiek edukitzen dituzte euren aurkia eta ifrentzua, hau da, gure bizitzetan eragina izaten duten afera oro ikuspuntu ezberdinetatik begira daitezke. Ezberdin begiratzeko aukera horretatik polemika sortzen da, eta honek norik berea argudiatzea ekarri ohi du: hizlariak tesi bat defendatzeko argudioak ematen ditu eta diskurtso horren helburua hartzailearengan eragitea da. Beste hitz batzuekin esanda, argudiatzea ideia bat norbaiten aurrean defendatzea da, norbait hori gure alde jar dadin. Horretarako, gure jarrera justifikatzen edo indartzen duten arrazoi batzuk emango ditugu, hartzailea disuaditzeko edo pertsuaditzeko asmoz.

Bigarrenik, argudiozko testuak lantzeko baliatzen ari garen erreferentzia bibliografiko nagusiak aipatuko ditugu, azken urteotan argudiatzearen inguruan eraiki dugun —eraikitzen ari garen— ikuspegia nondik nora doan uler dezan irakurleak. Halaber, iturriak agertzearekin batera, haietako bakoitza noiz-zertarako erabiltzen ari garen zehazten ahaleginduko gara:

- Genero akademiko idatziak ardatz dituzten Estrella Montoliok koordinatutako *Manual práctico de escritura académica* (2009) eta Montserrat Castellok koordinatutako *Escribir y comunicarse en contextos académicos* (2007) liburuak kontsultatu ditugu.
- Berariaz euskarazko ahozkoatasuna langai duen *Mintzola: ahozko lantegiak* sarean dituen materialak (2008az geroztikoak) aintzat hartu ditugu.

⁸ Esan dezagun, hala ere, azken txosten honetara iristeko, ikasleek aurretik talde faseak ere egin behar dituztela. Beraz, azken emaitza idatzia baldin bada ere, tarteko zenbait urrats taldeka ematen dira. Halaber, amaierako txostena idatzia izanagatik ere, bidean ahozko ariketa batzuk egiten dira. Hartara, moduluan, ikasteko modalitate diferentek lantzen dituzte ikasleek: banaka eta taldeka, ahoz eta idatziz.

- Gorago aipatu eta diskurtsoaren analisia jorratzen duten *Las cosas del decir* (1999) zein Cassany-ren *Taller de textos. Leer, escribir y comentar en en aula* (2006) liburuak irakurri eta gomendatu ditugu.
- (Ahozko) komunikazio gaitasuna lantzeko den Joxerra Garziaren *Jendaurrean hizlari* (2008) liburua ikasgelara bertara eraman izan dugu hainbatetan.
- Falazia eta argudio motez aritzeko García Damborenearen *Uso de razón* liburuan (2000) eta izen bereko webgunean (2008) begiratu dugu.
- Azkenik, argudiatzea bera azaltzea xede duten Christian Plantin-en bi lanen frantsesetik bi itzulpen aintzat hartu ditugu: *La argumentación* (1998) liburua eta *Argumentar: De la lengua de la argumentación al discurso argumentativo* dokumentu elektronikoa (Nora Muñozekin batera gaztelaniara egindako egokitzapena, 2010).

Hirugarrenik, gelako debateak antolatzeko nahiz arautzeko, Graó argitaletzeko bi liburu izan ditugu laguntza nagusi: Vilak koordinatutako *El discurso oral formal* (2005) eta Bosch & Palouk koordinatutako *La lengua oral en la escuela* (2005). Autore horien arabera, ikasgelako debateak testuinguru jakin batean gertatzen dira: iraupen konkretua dute, hitza txandakatzen da, partaideen kopurua jakina izaten da eta, normalean, publikoa ere egoten da. Beraz, esparru akademikoan aski estandarrak diruditen arau hauek ezarri ditugu gure jardunean, hizkuntzaren didaktikan ohikoa den planteamendua bazter utzi gabe: testua prestatu, testua garatu eta testua errebisatu egin behar baita, hizkuntza behar bezala landuko badugu (Camps, 2003).

Honenbestez, hona hemen unibertsitateko lehen mailako ikasleekin gelan antolatzen ditugun eztabaiden ezaugarri nagusiak eta faseak:

1. Eztabaida prestatzen

- Hiru laguneko taldeak osatzen dira.
- Eztabaidatzeko gai zerrenda bat adosten da denon artean (irakasleak, badaezpada, ikasgelan dialektika egokia gertatzeko gai batzuk eraman ditzake, hala nola: *homeschooling*, interkulturalitatea, tabakoaren kontrako legea, Abiadura Handiko Trena, drogen kontsumoa, Bologna prozesua, sare sozialak, eta abar). Ikasle guztiek bozkatzeko dute papertxo banatan eta boto gehien lortzen dituzten gaiak aukeratzen dira.
- Eztabaida bakoitzean kontrako jarrerak eta argudioak defendatu beharko dituzten bi talde egongo direla aurrez aurre jakinarazten zaie ikasleei. Horretarako, hirukote bakoitzari ematen zaio defendatuko beharko duen jarrera, rola. Hartara, argudiatzen trebatzeko joko honetan ikasleek ez dute egiatan pentsatzen dutena defendatu behar, baizik eta aurretik esleitu zaien rolari lotu.
- Teknika honi bi abantaila garrantzitsu ikusten dizkiogu gutxienez:
 - (i) norberaren pentsamenduez eta sentimenduez haratago, beste ja-

- rrera-diskurtso baten *larruan* jartzeak enpatia garatzen lagun dezake; (ii) rol jakin bat defendatzen ari garen heinean, eta ez guk benetan pentsatzen edo sentitzen duguna, eztabaidaren jokoan ego-kiago aritzeko baliagarria izan daiteke, kontu pertsonaletan sartzeke.
- Debatea bideo-kameraz grabatua izanen dela iragartzen da⁹; izan ere, saioa grabatzeak abantaila handiak eskaintzen ditu didaktika aldetik, ebaluazioari dagokion atalean ikusiko dugun moduan.
 - Irakasleak talde bakoitzarekin bileratxo bat egiten du tutoretza-ordu batean, eztabaidaren prozesua kontrolatzeko eta talde bakoitzak bere argudioak eta kontraargudioak behar bezala prestatzeko.
 - Talde bakoitzak bere argudioak prestatzeaz landara, beste taldearen balizko kontraargudioak zein izan litezkeen pentsatu eta erantzun egokia ematen saiatu behar du aldez aurretik.
 - Eztabaidagaia aldez aurretik eraturako diskurtsoekin ez egiteko ohartarazten zaie, pentsamendu kritikoa garatuz eta autonomia nahiz sorkuntza bultzatuz.
 - Eztabaidaren testuingurua azpimarratzen da: unibertsitateko ikasgelan gaude, esparru akademiko batean. Hortaz, halako testuinguru bati dagokion erregistroa erabili beharko da eztabaidan: formala.
 - Debatearen iraupena 30 minutukoa izango da, irakaslea moderatzaile lanetan arituko delarik.
 - Adeitasun arauak eta modalizazio egokia lagun, arerio dialektikoaren irudia bereziki zainduko da, inor kaltetu edota mindu gabe. Alde horretatik, urrezko arau bat ezartzen da: eztabaidak argudioen artean gertatu behar du, ez pertsonen artean.
 - Era berean, erreplikak nahiz errefutazioak egitean, beste hizlarien irudia arriskuan jar dezakegu; hori dela eta, norberak ez baitu beti arrazoi osoa, hizkuntzak dituen kontzesio-mekanismoak erabiltzeko ahaleginak nabarmentzen ditugu.
 - Lehen fase hau bukatzeko, irakasleak debate-saioak ebaluatzeko erabiliko dituen irizpide nagusien berri ematen die, errubrika baten bidez, (ikus lehen eranskina), ikasleek ariketaren ebaluazioak nondik nora joko duen aldez aurretik jakin dezaten.

2. Eztabaida egiten

- Hiru laguneko taldeak aurrez aurre esertzen dira mahai baten bueltan, eztabaidatzeko orduan distantzia erretoriko egokia egon dadin (ez sobera urrun, ez sobera hurbil).
- Irakasleak debatea aurkeztu eta hizlariari hitza ematen die (1'). Hemendik aurrera moderatzaile lanetan aritzen da eta solas egi-

⁹ Grabazioak direla eta, hitzarmen bat egiten da guztien artean, irudien erabilera esklusiboki didaktikoa egiteko, bestelako erabilera guztiak bazterturik.

teko txandak banatzen ditu. Orobat, irakaslearen rola ahantzi gabe, partaide berritsuenak apaldu eta isilenak zirikatzen saiatzen da, denen parte hartzea orekatua suerta dadin. Tarteka, eztabaidak hartutako bidearen arabera, hizpidea oroitarazi behar die hizlariari, dispertsioak saihestu, ideien sintesia egin edota kidetasunak nahiz ezberdintasunak agerian utzi.

- Talde bakoitzak bere argudioak jendaurrean azaltzen ditu ($5' + 5' > 10'$).
- Talde bakoitzaren argudioak entzun ondoren, eztabaidaren atalik bizenaren txanda da: argudioak eta kontraargudioak ($15'$) tartekatzea.
- Talde bakoitzak ondorioak aurkezten ditu, publikoa bere alde jar dadin ($2' + 2' > 4'$).
- Debatea itxitzat ematen du moderatzaileak.
- Eztabaidan parte hartzen ez duten ikasleek publiko aktiboaren papera jokatzeko dute. Horretarako, eztabaidaren ondoren, gaiari buruzko komentarioak egiteko aukera dute, bai eta taldeen jarduna iruzkintzeko ere, saio hauek ebaluatzeko errubrika mahai gainean dutelarik.

3. Eztabaida errebisatzen

- Aurreko puntuan ikusi bezala, gelako kideen artean lehen balorazio bat egiten da, ahoz, talde bakoitzak zertan asmatu duen nabarmentzeko eta zertan hobetu beharko lukeen aholkatzeko. Irakaslearen ardura da balorazio kolektiboa bideratzea, publikoari txanda emanez eta orduan adierazten direnak zehaztuz.
- Debatean egindakoa baloratzeko lehen saio horretan ikasleen arreta gogoeta metalinguistikoaren alorrera eramaten saiatuko da irakaslea, ikasleek hizkuntza nondik nora erabili duten hobeki jabe daitezen.
- Behin ikasgelatik kanpo, irakasleak eztabaidan parte hartu duten kideak baloratzen ditu, aurretik aurkeztutako errubrikaren arabera. Horretarako, zuzenean hartutako apunteez gain, grabazioaren laguntza du debatea(ren atal bat) berriz ikusteko.
- Ikasleek euren burua ebaluatzeko bideoa ikus dezaten proposatzen zaie, eztabaidan parte hartu duen kide bakoitzak bere buruaren gaineko ebaluazio idatzia (sintetikoki) egiteko. Honetan, berriz ere, ikasleei hizkuntzaren gaineko hausnarketa egin dezaten eskatzen zaie.
- Azkenik, ikasleek eta irakasleak eztabaidan gertatutakoa iruzkintzen dute tutoretza-ordu batean. Gisa berean, ikasleek idatziz egindako autoebaluazioak jasotzen ditu irakasleak.

Orain arte azaldu dugunaren arabera, unibertsitateko lehen mailako ikasleek taldekako eztabaiden bitartez euren gaitasun komunikatiboa lantzeko aukera paregabea eduki dezakete, sei lagun ordu erdi batez gai jakin

baten inguruan aritzea aski ariketa aberasgarria baita. Arestikoaren sendogari, hona hemen ikasgelako eztabaida *arrunt* batean ikasleek aktibatu behar izaten dituzten mekanismoen zerrenda estandar bat, hizkuntza parametro komunikatibotan neurturik:

GAITASUN LINGUISTIKOA

- Ezagutza morfosintaktikoa (esaldi konposatuak. Orden sintaktiko egokia. Galderen erabilpena).
- Ezagutza lexiko-semantikoa (hiztegi egoki eta zehatza. Ezagutzen ez diren terminoen azalpena).
- Ezagutza fonologikoa (ahoskera garbia eta lasaia, tonua eta erritmoa kontrolatzea).
- Eztabaida egituratzen duten markatzaile linguistikoak erabiltzea.

+

GAITASUN SOZIOLINGUISTIKOA

- Beste hizlarien irudia zaindu eta errespetatzea, bereziki erreplika eta errefutazioak egitean.
- Besteekiko begirunezko jarrera erakutsi momentu orotan, kontrako rola jokatu ere. Kortesia linguistikoa eta adeitasun arauak erabiltzea.
- Ahozko erregistro formalaren ezaugarriak baliatzea.
- Eztabaidaren hasieran eta bukaeran agurtzeko forma egokiak baliatzea.
- Eztabaidarako erregelen erabilpena: beste hizlariak hitz egiten du, moderatzaileak hitza ematen du, denbora egokiro banatu, hizlari guztien partaidetza orekatua...
- Debate akademikoa gertatzeko behar den giro lasaia sortzen laguntzea.

+

GAITASUN DISKURTSIBOA

- Aurkeztu beharreko argudioen gidoi bat egitea talde bakoitzaren ideiak antolatzeko eta tesi nagusiak defendatzeko.
- Argudiatzeaz gainera, kontraargudioak eta erreplikak ematea dialektikaren joko bizian.
- Eztabaidaren une bakoitzari dagokion argudiorik egokiena, pertinenteena aurkitzea.
- Adostasunak lortze aldera eta norberaren jarrera malgua dela erakuste aldera, kontzesioren bat egitea eta argudiozko kidesunak nabarmentzea.
- Testu antolatzaileen erabilpena, atal desberdinak markatzeko eta ideien arteko loturak adierazteko.
- Adibideak, konparazioak, metaforak eta argudioen sintesia baliatzea.

+

GAITASUN ESTRATEGIKOA

- Espazioan egoki jartzea, taldekideek nahiz hizlariak ongi ikusteko moduan.
- Ideien edo ikuspegi jakin baten errepikapena, erredundantea izan gabe.
- Intonazio enfatikoaren bidez kontzeptu garrantzitsuak markatzea.
- Ahotsaren intentsitatea espazio dialektikora egokitzea.
- Gorputzaren hizkuntza ondo kudeatzea, batez ere, keinuak eta begirada.
- Atalen artean eten txikiak egitea, diskurtsoari oxigenoa emanez.
- Zenbait kontzeptu edo ideia berriz ere azal ditzatela eskatzea.
- Eztabaidaren une egokian parte hartzea: benetan zerbait aportatzeko dugu-nean hitza eskatzea.
- Galdera erretorikoak baliatzea.

Honenbestez, gaitasun komunikatiboaz landara, ikasgelan antolatzen den eztabaida batek aukera handiak eskaini ahal dizkie ikasleei beren ikaskuntza-prozesuak eraikitzeko tenorean: beste pertsonak zer, nola eta zergatik pentsatzen duten pentsatzen dutena jakitea ez da batere lezio txarra. Hezkuntzan hitzetik hortzera aipatzen ditugun tolerantzia eta errespetuaren baloreak barneratzeko oso tresna baliotsua izan daiteke, adibidez.

Bestalde, guk ikasgelan antolatzen ditugun eztabaidek gaitasun komunikatiboa xede eta hezkuntza testuinguru dituztela argi utzi nahi dugu; izan ere, Espainiako Unibertsitate gehienek parte hartzen duteneko *Pasarela* lehiaketan taldekako eztabaidak ere antolatzen dira, baina beste ikuspegi batetik eta, batez ere, beste helburu batzuk lortze aldera (Pasarela, 2010). Bistan denez, gu ez gara aparteko talentuen bila dabilzan enpresariak, irakasleen irakasleak baizik; eta, ondorioz, gure interesak eta bitartekoak oso bestelakoak dira, bai eta sustatzen diren baloreak ere.

5. 2010-2011 IKASTURTEKO EZTABAIDAK BALORATZEN: LEHEN URRATSA

Aurtengo lehen esperientzia honetan ikusi ahal izan dugunez, debate guztiak ez dira berdin garatu, ez dira guztiak berdin arrakastatsu suertatu. Geroko maisu-maistren gaitasun komunikatiboa espresuki jorratzen hasiak garen bide berri honetan landu eta hobetu behar ditugun alderdiak ez dira gutxi. Hona hemen, zerrendatuta, ikasleek eta guk lehenbiziko urte honetan identifikatu ditugun zailtasun nagusiak:

- Unibertsitatean sartzen diren ikasle frankok ez du hizkuntza gutiz menperatzen eta, ondorioz, hainbat problema egoten da *gaitasun linguistiko*arekin. Egoera minoritarioan eta minorizatuan dagoen euskararen kasuan, gaitasun linguistikoaren arazoak areagotu egiten dira, unibertsitatean sartzen ari diren 18-20 urte bitarteko gazte as-

kok euskara esparru akademikoan soilik erabiltzen dutelako: gaztelaniaz bizi dira ikasle hauek; hortaz, euskararen ezagutza kaskarra-goa dute gaztelaniarena baino¹⁰.

- Ohiko akats gramatikalez gainera, sintaxian egitura simple eta laburrak erabiltzeko joera dute, diskurtso zatikatuago eta ahulagoa osatuz. Sintaxi aberatsagoa lortzeko arazoak sumatu ditugu, eskuarki.
- Hiztegiari dagokionez, bereziki ahoz eta modu bizian ari direlarik, lexikoaren erabilera lausoa, kamutsa eta zehaztugabea maiz gertatzen dela ohartu gara. Hiztegiaren barruan, neurri txikiagoan, erdarakada zenbait ere agertu dira.
- *Gaitasun soziolinguistikoaren* aldetik, ikasle gehienak, ia guztiak, beren ohiko jardun natural-informaletik oso hurbil aritu direla konturatu gara, hurbilegi. Beraz, ikasleek ahozko erregistro formalak nabarmen hobetu behar dituztela bistan da: oro har, badakite formal idazten, ez, ordea, formal mintzatzen. Esaterako, etxeko/herriko euskalkia duten ikasle (ia) guztiak etxean edota herrian bezalaxe aritu dira, euskalki betean eta lasai ederrean.
- *Gaitasun diskurtsiboaz* den bezainbatean, askok ahozko lokailuen erabilera eskasa egiten dutela ikusi da. Argudioak eta kontraargudioak emateko orduan lokailu gutxi baliatzen dituzte.
- Erretorikan baliabide nagusiak diren analogia eta metafora gutxitxo agertu dira eztabaidetan, diskurtsoei indar gutxiago emanez.
- *Gaitasun estrategikoari* dagokionez, zenbait ikaslek, ez gehiegik, *oraindik* paperari lotu samarrak jardun dute, erdi irakurritz bezala.
- Ikasle frankok kode ez berbala zaintzen ahalegindu beharko du aurrerantzean: jarrera (fisikoa), eskuak, hankak, ahotsa, begirada, aurpegierak nahiz keinuak.
- Batzuetan, eztabaidara ekarritako materialei behar adina zukurik ez diete atera zenbaitzuek, mementoko urduritasun handia zela eta. Ahozko balorazioetan, *Garapenaren Psikologia eskola adinean* ikasgaian ikusitako *Adimen Emozionalaz* (Goleman, 1996) behin baino gehiagotan mintzatu gara gelan.
- Azkenik, urduritasuna eta beldurra hitzak maiz gelaratu dituzte ikasleek, askok adierazi duten eran, unibertsitatera iritsi bitarteko hezkuntzan halakorik inoiz egin ez dutelako¹¹.

¹⁰ Argi gera bedi arestian azaldutako egoera ez dagokiola Gasteiz hiriarri bakarrik, baizik eta Euskal Herriko herri ugariari eta hiriburu guztiei, euskarak gure herrian bizi duen diglosiaren egoera dela bide, aldeak alde. Bestalde, Gasteizko Irakasle Unibertsitate Eskolan ikasten ari diren gazteak Hego Euskal Herriko lau probintzietatik datozela gogoan hartzea komeni da, (oso) noizbehinka Ipar Euskal Herriko ikasleren bat ere ager daitekeela. Hortaz, ez gara ari gasteiztarrei edo arabarrei esklusiboki dagokien ezaugarri batez, ezpada Euskal Herriko gazte frankoren errealtate soziolinguistikoaz.

¹¹ Dolores Abascalek dioenez (2010: 51-52), oraindik ere posible da bigarren hezkuntza osoa gaintzea inongo ahozko probetan ebaluatuak izan gabe; zenbaitetan, gainera, po-

Bestalde, hurrengo urteetan hobetu beharko ditugun alderdiak nabarmentu ondotik, esperientzia honetan erdietsi diren emaitza positiboak ere zerrendatu beharrean gaude, labor bada ere, irakurleak egiten hasi garen lanaren argazki osatuago bat har dezan:

- Taldeak proposatutako dinamikan sartu dira arazo handirik gabe, hasieratik bertatik ikasle asko eta asko gogotsu aritu direlarik.
- Klasean landutako estrategia komunikatiboak eta baliabide erretorikoak erabiltzeko asmo kontzientea egon da ikasle gehienen aldetik, nahiz eta gero emaitzak denetarikoak suertatu diren.
- Moduluko beste ikasgaietan jorratutako kontzeptuak eta autoreak erabili dituzte argudioak eta kontraargudioak emateko orduan. Hor-taz, autoritate argudioak erabiltzeaz gainera, diziplinartekotasuna txertatu dute euren rolak defendatzean.
- Denok errespetua arnastu dugu une orotan eta urrezko araua bete egin da: eztabaidak argudioen artekoak izan dira, ez pertsonen artekoak. Gisa berean, debatearen beste arauak xorrotx bete ditugu.
- Aurreko guztiaren ondorioz, gelan eztabaida interesgarriak ikusi ditugu, oro har.

Esan dezagun, beraz, pozik egoteko moduko emaitzak jaso ditugula; are gehiago, (plangintza handi baten) lehen urtean gaudela kontuan harturik. Nolanahi ere den, lanean jarraitzeko motibo ugari ditugu, gorago agertu zailtasunak eta arazoak gure hurrengo urteko ikasleekin lantzeko, konparazio. Lehen urratsa egina da, bederen.

6. ONDORIO NAGUSI ZENBAIT

Aldaketa handiak gertatzen ari dira gizartean, ekonomian eta kulturari, eta aldaketa horiek eragina dute unibertsitatean. Izan ere, industriaren gizar-tetik informazioaren, jakintzaren eta ikaskuntzaren gizartera igarotzen ari gara, eta sortzen ari den gizarte berrian, funtsezkoa da ezagutzeko eta ikasteko gaitasuna, gaitasun individual nahiz kolektiboa¹².

Aldaira-giro honetan, beraz, gradu berrietako lehen mailako ikasleek gaitasun komunikatiboa era indibidualean zein kolektiboan lantzea proposatzen dugu. Artikulu honetan, zehazki, unibertsitateko ikasgelan talde-kako eztabaidek ekartzen dituzten abantaila nagusi zenbait azaldu ditugu, ikasleek pentsatzen dutena egoki defendatzen ikas dezaten eta sentitzen

siblea ez ezik probablea ere bai. Dena den, guk aurtengo gelan ikusi eta Abascalek berak ere dioen legez, ahozko probak ebaluatzea gero eta ohikoago bilakatzen ari da bigarren hezkuntzan. Bidean goaz, nonbait.

¹² Hau dela eta, Informazio eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) gero eta presentzia handiagoa eskuratzen ari dira, eskolan nola munduan.

dutena sendo argudiatzen ikas dezaten, estereotipoei eta alferkeria intelektualei muzin eginez.

Gelan eztabaidatzen ikasteak hizkuntza ongi erabiltzea eskatzen du nahitaez: mekanismo linguistiko-komunikatibo anitz eta konplexuak dira egoki kudeatzen jakin behar direnak. Debateak prestatzen, gauzatzen eta aztertzen direnean, argudioak nolakoak diren ikusteko abagune garbia dugu, bai eta argudiozko testua nola antolatzen den ere. Era berean, ahozko argumentazio formalaren genero akademikoa lantzeaz landara, ikasleek hausnarketa eta gogoeta egiten ikasteko testuinguru ezin egokiagoa dute; gaitasun komunikatiboa ez ezik, norberaren gaitasun kritikoa ere garatuz.

Mota honetako eztabaidek badute nabarmendu nahi ditugun beste bi ezaugarri nagusi: ahoz eta taldeka antolatzen dira. Horrela, maiz aipatzen baina oraindik gelan gutxi lantzen dugun ahozko komunikazioa jorrazteko parada ederra dugu. Alde horretatik, Abascalek bere lanean esaten duenarekin bat gatoz (2010), hots, ahozko gaitasunari benetako garrantzia emateko bide egokiena ahozko probak esplizituki ebaluatzea dela, besteak beste, ikasleek aintzat har ditzaten. Gure kasuan, lehenago agertu dugun modura, eztabaida horiek azken kalifikazioaren % 20 dira, ikasgaia gainditzeko atal hori (ere) gainditzea ezinbestekoa delarik. Horra hor, oraingoz, gure apustua.

Unibertsitateko ikasleen (ahozko) gaitasuna dela eta, zenbait irakaslek behin baino gehiagotan adierazi duten legez (ikus, adibidez, Tusón 1991, Carlino 2005 eta Echevarría et al. 2009), maiz ikasleek testu akademikoak ulertzeko eta ekoizteko arazo handiak izaten dituzte. Esaterako, unibertsitateko ikasle anitz ez da ahozko azalpen edo argudiatze formalik egoki egiteko gauza. Alderdi horretatik, beraz, debate formalak ikasgelan lantzea ohiko gaitz horientzako botika sendagarri gerta daiteke.

Bigarren ezaugarriaz den bezainbatean, berriz, eztabaida taldeka egiten dugunez gero, gelan ikasteko bide kooperatiboak eta dialogikoak baliatzen ditugula adierazi beharra dago. Ramón Flecha hezkuntzaren soziologoari irakurri diogun gisan (1997), informazioaren gizarteari hobekien dagokion ikaskuntza mota dialogikoa baita, alegia, elkarrizketatik eta elkarrekintzatik ikastea proposatzen duena¹³.

Bestalde, Nekane Goikoetxeak bere tesian nahiz ondoko lan dibulgatibo batean adierazi duena ekarri nahi dugu: hizkuntzaren kalitatea parametro komunikatiboen bidez neurtzen ahal da (Goikoetxea 2007 eta 2008). Alde horretatik, Erreferentzia Marko Europar Bateratuak ere ekarpen interresgarria egin zuen (2001ekoa da originala, 2005ekoa euskarazko bertsioa) gaitasun komunikatiboaren osagaien gainean sakonki hausnartzeko eta ebaluatzeko asmoz.

¹³ Egia esan, perspektiba dialogikoa etengabe baliatzen dugu, eskola (mota) guztietan, elkarrizketa eta solasaldia ikasteko tresna bihurturik. Eztabaidetan urrats bat haratago egiten dugu, dialogikoa denak dialektikaren maila eskuratzen duelarik.

Esan dezagun, aurrera egin aurretik, ikasle gehienek gelan erabilitako metodologia aktiboa positiboki baloratu dutela. Are gehiago, zenbait ikasle euren eskerrona agertu dute, prozesuan zehar zenbat ikasi duten konturatuta, hasieran (egoera berriaren aurrean) urduri samar baldin bazeuden ere. Ikasleen ikuspegia ondo laburbiltzen ahal duen datu bat emango dugu segidan: ikasgelan erabateko adostasuna egon da taldekako eztabaidak gauzatu beharraren inguruan. Era berean, graduari halako ahozko proba gehiago egiteko nahia adierazi dute ikasle ugariak.

Hortaz, agerikoa da aurrerantzean ildo beretik jardun beharra daukagula, unibertsitateko ikasleen gaitasun komunikatiboa hobetzen. Aurtengo esperientziaren ondorioz, erronka nagusi bat agertu dela esan dezakegu: lehen mailako ikasleak ahozko erregistro formalean areago trebatzea. Horretarako, baina, artikuluan azaldutako hainbat alderdi bereziki jorratu beharko ditugu hemendik aurrera: ahozko sintaxia, lexikoaren aukeraketa eta erabilera, egoeraren arabera erregistro egokiak, ahoz argudiatzeko nahiz kontraargudiatzeko lokailuak, kode ez berbalari kontzientean errepertorioa eta beldur eszenikoa kudeatzeko beharraz ohartaraztea.

Dena den, amaitzeko, aitor dezagun gaitasun komunikatiboaren alorrean oraindik asko dugula egiteko, gehiena, ziurrenik. Ildo horretan ari gara lanean, pausa eta presarik gabe, egunerokoan hizkuntza eta hezkuntza uztartzen ditugun profesionalon artean eztabaida emankorrak edukitzeko asmoz, etorkizun hurbileko maisu-maistrek egokiago komunikatzen ikas dezaten.

Jasotze-data: 2010/03/04

Onartze-data: 2011/06/27

Abstract

This change environment which the University of the Basque Country is living in, we want to report some process by this paper. For example, Development of Communicative Competence subject that we have been teaching for first time is as a result of one these processes. However, although this subject is new, we haven't started from zero: we have been going to make use of the tradition previously was in Didactics of Language and we have known in this University College of Teacher Training of Vitoria-Gasteiz until now, so that bridges between the past and the future will be well built. In that sense, we want to claim that discourse genres had been developed many times in our classrooms and language had been measured by communicative parameters. Therefore, when new grades are been establishing, we have tried to give another step: to work on language by communicative competence and academic discourse genres, sys-

tematically. Because of that, we want to talk about group discussions in the university classroom, an academic genre which students will have to improve in the future; so that our students defend appropriately what they think and argue what they feel in their academic and professional way.

Keywords: *Didactics of language. Communicative competence. Discourse genres. Group discussions.*

Dentro del ambiente de cambio que se está produciendo en la Universidad Pública Vasca, pretendemos dar cuenta de ciertos procesos mediante este artículo. Por ejemplo, la asignatura Desarrollo de la competencia comunicativa que se ha impartido por primera vez es fruto de uno de los procesos mencionados. No obstante, a pesar de ser una asignatura de nueva creación, no se ha partido de cero: hemos utilizado la tradición didáctica que ha llegado hasta nosotros en esta Escuela Universitaria de Magisterio de Vitoria-Gasteiz, con la intención de tender puentes entre el pasado más reciente y el futuro más cercano. En este sentido, queremos dejar constancia de que los géneros discursivos se han trabajado con bastante frecuencia en nuestras aulas y que la lengua ha sido medida a través de parámetros comunicativos. Con la implantación de los nuevos grados, por tanto, hemos dado otro paso más: trabajar la lengua con el enfoque de la competencia comunicativa y a través de los géneros discursivos académicos. Por esta razón, la propuesta que aquí realizamos consiste en organizar grupos de debate en el aula universitaria, uno de los géneros discursivos académicos a trabajar a partir de ahora; para que los y las maestras del futuro aprendan a defender adecuadamente lo que piensan y a argumentar sólidamente lo que sienten a lo largo de su vida académica y profesional.

Palabras clave: *Didáctica de la lengua. Competencia comunicativa. Géneros discursivos. Debates grupales.*

À travers cet article nous voudrions témoigner de processus en cours dans le climat de rénovation que nous expérimentons actuellement au sein de l'Université du Pays Basque. La nouvelle matière intitulée Développement de la compétence de communication, qui est l'aboutissement d'un de ces processus, en est un exemple car, en réalité, bien qu'il s'agisse d'une matière qui vient d'être instituée, nous ne sommes pas partis de zéro. Loin de là, nous avons pu recourir à une tradition didactique vivante dans cette École Universitaire de Formation des Maîtres de Vitoria-Gasteiz et maintenir ainsi le lien entre le passé le plus proche et l'avenir immédiat. Encore faut-il souligner que le travail sur les genres discursifs a été souvent présent dans notre enseignement, et que l'évaluation de la pratique linguistique

s'est généralement effectuée selon les paramètres de la communication. L'implantation des nouveaux grades universitaires ne constitue donc qu'un pas de plus : aborder le travail sur la langue selon la notion de compétence communicative et à travers les genres du discours académiques. D'où notre proposition d'organiser notre enseignement universitaire à partir de groupes de débat. Nous considérons que le débat est un des genres du discours académiques à travailler particulièrement, afin que les professeurs de l'avenir apprennent à défendre adéquatement leurs opinions ainsi qu'à donner des arguments solides sur ce qu'ils ressentent tout au long de leur expérience académique et professionnelle.

Mots clés: Didactique de la langue. Compétence communicative. Genres discursifs. Groupes de débat.

BIBLIOGRAFIA

- Abascal, D. (2010). «Evaluación del uso oral como proyecto de centro». *Textos*, 53, 48-57.
- Bachman, L.F. (1990). *Fundamental Considerations in Language Testing*. Oxford: Oxford University Press.
- Bachman, L.F. eta Palmer, A.S. (1996). *Language Testing in Practice*. Oxford: Oxford University Press.
- Besalú, X. (2007). *Educación Intercultural y Formación del Profesorado*. www.crei.centros.educa.jcyl.es. 2010eko abenduaren 29an kontsultatua.
- Bosch, C. eta Palou, J. (koord.) (2005). *La lengua oral en la escuela*. Graó: Bartzelona.
- Calsamiglia, H. eta Tusón, A. (1999). *Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso*. Bartzelona: Graó.
- Camps, A. (2003). «Proyectos de lengua entre la teoría y la práctica», in A. Camps (koord.) *Secuencias didácticas para aprender a escribir* (33-46). Bartzelona: Graó.
- Canale, M. eta Swain, M. (1980). «Theoretical bases of communicative approaches to second language teaching and testing». *Applied Linguistics* 1, 1-47.
- Canale, M. (1983). «De la competencia comunicativa a la pedagogía comunicativa del lenguaje», in M. Llobera (ed.) (1995), *La competencia comunicativa* (63-81). Madril: Edelsa.
- Carlino, P. (2005). *Escribir, leer y aprender en la universidad. Una introducción a la alfabetización académica*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- Cassany, D. (2006). *Taller de textos. Leer, escribir y comentar en el aula*. Bartzelona: Paidós.
- Castello, M (koord.). (2007). *Escribir y comunicarse en contextos académicos*. Bartzelona: Graó.

- Celce-Murcia, M.; Dörnyei, Z. eta Thurrell, S. (1998). «Gaitasun komunikatiboa: asmo pedagogikoen sortutako eredu bat, osagaien edukiak zehaztuta», *Hizpide*, 41, 59-89.
- Echevarría, M.A. et al. (2009) «Alfabetización académica en el ámbito universitario», in Rojo, J. et al. (arg.) *Hizkuntza eta literaturaren irakaskuntza eta ikaskuntza* (93-108). Bilbo: EHU-UPV.
- Europako kontseilua (2005). *Europako Erreferentzia Marko Bateratua. Hizkuntzen ikaskuntzarako, irakaskuntzarako eta ebaluaziorako*. HABE: Vitoria-Gasteiz.
- Flecha, R. (1997). *Compartiendo palabras. El aprendizaje de las personas adultas a través del diálogo*. Bartzelona: Paidós.
- García, R. (2000). *Uso de razón*. Editorial Biblioteca Nueva: Madril.
- García, R. (2008). *Uso de razón*. www.usoderazon.com. 2011ko martxoaren 3an kontsultatua.
- García Azkoaga, I. (2007). «Ahozko azalpena unibertsitatean: ezagutzak ebaluatzeke tresna bat baino gehiago», in Idiazabal, I. & García Azkoaga, I. (arg.) *ahozko hizkuntza: Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan* (176-194). www.testubiltegia.ehu.es. 2011ko otsailaren 18an kontsultatua.
- Garzia, J. (2008). *Jendaurrean hizlari*. Irun: Alberdania.
- Goikoetxea, N. (2007). *Gaitasun komunikatiboa eta hizkuntzen arteko elkar eragina EAEko hezkuntza eleanitzetan*. Bilbo: EHU-UPV.
- Goikoetxea, N. (2008). «Gaitasun komunikatiboa lantzeko proposamena». *Hizpide* 69, 86-105.
- Goleman, D. (1996). *Inteligencia emocional*. Kairós: Bartzelona.
- Hymes, D. H. (1972). *On communicative competence*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- Mendiburu, M. (2010). *Hizkuntzaren aldagarritasuna: Euskararen aldaerak (irakasleen formaziorako apailatua)*. www.testubiltegia.ehu.es. 2011ko otsailaren 16an kontsultatua.
- Mintzola: ahozko lantegia. (2008). www.mintzola.com. 2010eko azaroaren 19an kontsultatua.
- Montolio, E. (koord.). (2009). *Manual práctico de escritura académica*. Bartzelona: Ariel.
- Muñoz, N eta Plantin, C. (2010). *Argumentar: De la lengua de la argumentación al discurso argumentativo*. www.icar.univ-lyon2.fr. 2011ko otsailaren 24an kontsultatua.
- Pasarela. (2010). www.pasarela.com. 2010eko azaroaren 23an kontsultatua.
- Pérez Esteve, P. eta Zayas, F. (2007). *Competencia en comunicación lingüística*. Madril: Alianza.
- Plantin, C. (1998). *La argumentación*. Bartzelona: Ariel.
- Ruiz Bikandi, U. (ed.). (2009) *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*. Bilbo: EHU-UPV.
- Tusón, A. (1991). «Las marcas de la oralidad en la escritura». *Signos: teoría y práctica de la educación*, 3. 14-19.
- Vila, M. (koord.). (2005). *El discurso oral formal*. Bartzelona: Graó.

ERANSKINA

Eztabaidak ebaluatzeko errubrika

Alderdi linguistikoak	<p>Enuntziatuak egokiro eraikitzen ditu: esaldi bakunak eta konposatuak ondo eratzen ditu, ordena sintaktiko egokian.</p> <p>Hiztegi egoki eta zehatza baliatzen du, eta beharrezkoa denean ezagutzen ez diren terminoen azalpena eskaintzen du.</p> <p>Ahoskera garbia eta lasaia erabiltzen du, tonua eta erritmoa ondo kontrolatzen ditu</p> <p>Eztabaida egituratzen duten markatzaile linguistikoak erabiltzen ditu.</p>	
Alderdi soziolinguistikoak	<p>Beste hizlarien irudia zaindu eta errespetatzen du. Halaber, kortesia linguistikoa eta adeitasun arauak erabiltzen ditu.</p> <p>Ahozko erregistro formalaren ezaugarriak baliatzen ditu, besteak beste, eztabaidaren hasieran eta bukaeran agurtzeko forma egokiak baliatzen ditu.</p> <p>Eztabaidarako erregelak errespetatzen ditu: mintzatzeko txandak, hizlari guztien partaidetza orekatua, giro lasaia...</p>	
Alderdi estratejikoak	<p>Espazioan egoki jartzen da, taldekideek nahiz hizlariak ongi ikusteko moduan.</p> <p>Intonazio enfatikoaren bidez kontzeptu garrantzitsuak markatzen ditu, ahotsaren intentsitatea espazio dialektikora egokituz.</p> <p>Gorputzaren hizkuntza eta proxemiako baliabideak ondo kudeatzen ditu, batez ere, keinuak eta begirada.</p> <p>Atalen artean eten txikiak egiten ditu, diskurtsoari oxigenoa emanez.</p> <p>Zenbait kontzeptu edo ideia berriz ere azal ditzatela eskatzen du. Era berean, galdera erretorikoak erabiltzen ditu.</p>	
Alderdi diskurtsiboak	Sarrera	<p>Kontuan hartzen du argudiatzearen testuingurua.</p> <p>Argi dago defendatu nahi den tesia.</p> <p>Gaia aurkezteko modua originala da.</p> <p>Hartzaileen arreta eta interesa biltzea lortzen du.</p>
	Garapena	<p>Egoerak eta asmo komunikatiboak eskatzen dituzten argudioak ongi hautatzen ditu.</p> <p>Diskurtsoa era argian eta antolatuan egituratzen du.</p> <p>Argudioak etsenpluz, aipuz, metaforaz, audientziarenganako apelazioz, eta abarrez hornitzen ditu.</p> <p>Argudioak egokiro justifikatu ditu? Kontra-argudiorik txertatu du norberaren diskurtsoan</p> <p>Argudiozko lokailu diferente eta egokirik baliatu du ideiak era logikoan adierazteko.</p>
	Ondorioak	<p>Hasieran eta diskurtsoan zehar erabilitako argudioen araberrako ondorio garbirik eta koherenterik ateratu du.</p> <p>Argudiatzeko saioa egoki amaitu du: laburpena eginez, entzuleak alde jartzeko dei eginez, esker-hitzak esanez, eta abar.</p>